

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Atal honetan gure bezeroak zeintzuk izango diren eta zergatia azalduko dugu.

Lehenik eta behin argitu nahi duguna da, zerbitzu honen helburua ez dela ahalik eta ikasle gehien izatea, baizik eta behar duten horiek erantzun on bat jasotzea, gure lehenetsua beraiek zaintzea baita. Gure helburuetako bat gure bezeroak gehiago eta hobeto ezagutzea da, eskaintza haien interesetara egokitzeko; ahaztu gabe munduan bezero mota ezberdin daudela, eta bakoitzak desberdintzen dituen beharrak eta ezaugarriak dituela.

Gure proiektuarekin hasi ahal izateko, hartu beharreko lehenengo urratsa bezero muga errealista bat jartzea da. Horrela, bezero konkretu batean zentratuko gara eta gure zerbitzua ea benetan funtzionatzen duen frogatuko dugu. Hori dela eta, gure inguruan kokatuko dugu negozioa, Zumarragan eta Urretxun. Beraz, bezeroak bi herri hauetakoak izango dira. Gure ideiak arrakasta handia edukiz gero, hurrengo pausoa Euskal Herria mailan zabaltzea izango litzateke, ahalik eta pertsona gehien zerbitzu honetaz baliatzeko aukera izateko.

Azkenik, kontuan hartuta hezkuntza derrigorrezkoa dela Lehen Hezkuntzatik DBH-ra arte, eta kanpotik etorritako etorkinak eskoletan euskara hizkuntzarekin ondo moldatzea edota barneratzea nahi dugunez, 6 eta 16 urte bitarteko umeei bideratuta egongo da. Ume hauek baliabide urriak eta mugatuak dituzten herrialdeetatik etorriko dira, hots, hirugarren munduko herrialdeetatik edo liskarrak dituzten herrialdeetatik. Horrelakoak dira, Afrika, Hego Amerika, Asia... Beraz, nahitaezko balditza izango da ama-hizkuntza euskara ez izatea

Zerbitzu hau debladekoa izango da, beraz ondo baino hobe finkatuko dugu nork jaso dezakeen gure zerbitzua; izan ere, hau egin ezean, herri guztia etorriko da Euskarako partikularrak doan ematen ditugulako. Beraz, gure zerbitzuan onartu izan ahal izateko hainbat eskakizun bete behar dira.

1. Diru sarrerek 1000€ baino gutxiago.
2. Baliabiderik ez edukitzea doain ez den beste zerbitzu batean euskara ikasteko.